


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 2 IBILBIDE OROKORRA

Irakasleentzako koadernoia

Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko Irakasleentzat



SARRERA

Proposatzen den ibilbidea talde osoak batera gidari batekin egiteko pentsatua da. Gidaria Museoko langilea izan daiteke, edo irakaslea bera, bisitaldi autonomo gisa ere egin daiteke eta.

San Telmo Gizarte Museo bat da; alegia, iraganera begira etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Hartara, askotariko gaiak jorratzen ditu. Beraz, Museo zabala da zentzu guztietan. Bisitaldi bakar batean ikasleekin dena lantzea ezinezkoa denez, honako ibilbide honetarako izaera ludikoko hainbat adibide aurkezten ditugu, betiere erakusketa iraunkorraren muina ezagutzen ahalbidetzen dutenak. Haien bidez, historian zehar bizimoduen bilakabidea, lanbideak, iraunkortasuna, ondarearekiko eta museoen egitekoekiko sentiberatasuna jorratzen ahal dira.

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde zurretik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpenak ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakaslearen gain geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Halaber, irakaslearen esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren ikastetxean jorra daitezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Jarduera osoa egiteko, ordu eta erdi kalkulatzen da.



Bisitaldiaren prozedura:

Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren eta jorratu beharreko gaien aurkezpena.

Eliza:

Ikus-entzunezkoa (13 min.)

Ariketak beheko eta goiko solairuan:

Beheko klaustroan bertan eta “Espiritualtasun zeinuak” eta “Aztarnak oroimenean” erakustaretoetan; XVI. mendeko dorretik igota, goiko klaustroan eta bizimodu tradizionalari, industrializazioari eta Arte Ederrei eskainitako erakustaretoetan.

Proposatutako objektuen harira, gidariak hainbat azalpen emango du, bertan taldeak bete beharreko fitxaren datuak bete ditzan, zuzenean ahoz emandako erantzunen bitartez, fitxetan agertutako objektuen aldamenean. (Irakasleak bere kabuz egitea erabakitzen badu, bere esku geratzen da pasarte hau).

Ahazkotasuna nagusi izan arren, ikasleentzako fitxa ere bada, adibidez gerora ikastetxean bertan landu nahi izanez gero idatziz ere egin ahal izateko.

Fitxak lantzeko ordena gehienbat ibilbide koherente bat egiteko (atzerabiderik gabe) planteatzen da, baina ez da ordena zorrotzekoa, fitxak berez autonomoak dira eta. Hain zuzen, proposatzen diren hamalau fitxak gehieneko kopurua da, haietarik taldearen interes, ahalmen eta igurikipenen arabera batzuk edo bestetzuk hautatzeko aukera izan dadin.

Era berean, ibilbide bera egiten duten bi ikastalde egonez gero, bisitaren ordena (hala nola, goiko klaustroan hasita) alda daiteke.


OHARRA: Irakasleen gida honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.





Hona hemen, beheko eta goiko solairuen plano banatan, ariketa bakoitza egiteko kokalekua:

Beheko solairua






MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 2

IBILBIDE OROKORRA

Goiko solairua



○ **Itzal handiko andrea nintzen; oinak, berriz, txikiak nituen.**



Nor nintzen?

Grazia Olazabal, San Telmo komentuaren fundatzailea

Grazia Olazabal Donostiako familia aberatsenetako baten alaba zen, Alonso Idiakezzen andrea. Biek fundatu zuten San Telmo komentua XVI. mendean. Horregatik daude bertan lurperatuak.



○ **Badut burua, baina ez gorputza.**



Non pizten ninduten?

Elizan

Argizaiolak Euskal Herrian beste inon ez dira erabiliak. Familia bakoitzak bereak zituen. Elizan pizten ziren, baina beti familietako etxeko andreak etxetik eraman eta behiala, jendea eliza barruan lurperatzen zenean, etxearen hilobia (jarlekua esaten zaio horri) egondako tokian.



○ **Agur, adiskide!**



Non aurkitu ninduten?

Nafarroan, Lizarragako mendietan

Hilarrietan askotariko irudiak aurkitzen dira, kristauak (denetariko gurutze motak) ez ezik, astronomikoak (ilargia, eguzkia, izarrak), hainbat landare eta animalia, lanabesak, motibo geometrikoak, heraldikoak... Baina emakumezko biluzia agertzea oso-oso bitxia da.



○ Arabieraz idatzita nago, baina ez naiz liburua.



Norena nintzen?

Boabdil Granadako azken errege arabiarrena

Musulmanen presentzia Iberiar Penintsulan oso luzea eta itzal handikoa izan zen, eta ez zen bukatu 1492an, azken erresuma musulmana konkistatuta. 1609an moriskoak egotzita ere, haien ezaugarri zenbait kristau kulturetan sakon erroturik txertatuak zeuden; adibidez, euskarak berak badu arabierazko hitzik.

Boabdilen ezpata honek ederki erakusten du arabiar-musulman (ez dira gauza bera, baina bai antzekoak kasu honetan) artearen ezaugarri bikainetako bat: giza irudirik ez, baina landare eta geometriazko korapilo oparoak. Idazkera bera ere arte bihurtzen da.



○ Ez dut ilerik, baina badut bizarra!



Zer naiz eta zertarako erabiltzen ziren nire bizarrak?

Baleen bizarrak izan dira mendeetan zehar, plastikoa asmatu arte, material malgu eta era berean euskor bakanetarikoa. Horregatik erabili izan dira gerruntzeen barne-hagaxkak egiteko (hain zuzen, baleak deitzen zaie), aterkienak, eta halako gaiak.



Putz eta putz! Horixe da nire lana. Aurki nazazu.



Elkartu ura, sua eta haizea nire meari, eta zer ateratzen da?

Burdina lortzeko, XIV. mendeaz geroztik, uraren indarra (ur-jauzi artifizialak sortuta, hauspoei eta gabiari eragiteko), suarena (egur ikatza baliatuz) eta haizearena (hauspoen bidez, sua areagotzeko eta nahikoa tenperatura lortzeko) erabili izan dira.

Burdingintza izan da euskal ekonomiaren eragile nagusietarikoa, eta burdinolen arrastoak nonahi daude erreken ertzetan. Gaur egun Gipuzkoan Legazpiko Mirandaolan eta Aiako Agorregin eta Bizkaian Muskizko Pobalen museo bihurtuta ezagut daitezke.



○ Luma badut eta ez naiz txoria.



Horrelako kapelua nork eramango zuen?

militar batek | apaiz batek | arrain-saltzaile batek

XIX. mendeko uniforme militarretan aurkitu ohi dira halako lumadun kapeluak. Harekin itxura ikusgarriagoa lortzen zuten, soldaduek altuagoak ematen zuten eta. Bestetik, uniformeaz bereiztea inportantea zen etsaiak eta aldekoak ez nahasteko; horregatik baliatzen zituzten kolore biziak.

Kamuflatzeko beharra XX. mendeko gauza bat da, armagintza eta gerra egiteko moduak aldatu ahala.



○ Bi gurpil, eta aurrekoan, ni.



Orduko gurpilak airez puzten al ziren?

Ez. Orduko txirriak kautxu beteko gurpilak eramaten zituzten. Pedalak ere aurreko gurpilean zeuden, ez, gaur egun bezala, bien artean.

Halaber, lehendabiziko bizikletak aberaskumeen jostailuak ziren; baina langileentzako ibilgailu merke gisa zabaltzen hasi ziren, eta urte asko dira guztiz tramankulu arruntak direla, jolaserako, lanerako, kirolerako... Euskal Herrian, Eibarren hain zuzen, asko egiten ziren, gero ikus daitekeen bezala.



○ Bi adar ditut, eta ez naiz zezena.



Nola dut izena?

Alboka arabierazko al-buk izenetik dator. Izenak izen, halako musika-tresnak kontinente guztietan ezagutzen dira.

Alboka euskal musika tresna tipikoa galzorian egon zen, duela berrogei bat urte Bizkaiko Arratian beste inon ez baitzen jotzen jada.

Folklore taldeek lan handia egiten dute, alboka ez ezik, hainbat musika tresna berreskuratzeko eta erabilera, material eta baliabide berriak asmatuz biziberritzeko. Hori da txalapartaren kasua ere, ia guztiz desagertua baitzegoen.



○ Beterik banengo, ez zenukete lorea ikusiko.



Zerezkoak dira platerak?

Platerak, eltzeak eta lapikoak lurrezkoak izan ohi ziren, nahi adina forma eta tamaina har zezaketelako. Hori bai, hauskorak zirenez, kontuz erabili behar izaten ziren. Normalean, iragazgaitz bihurtzeko eta garbitzen errazago egiteko, esmaltea (beirazko geruza mehea) ematen zitzaien.

Portzelana goi mailako buztingintza da, dotoreagoa, finagoa, iraunkorragoa... baita garestiagoa ere. XIX. mendean Pasaian eta XX. mendean Irunen portzelana fabrikak egin arren, baserrietan ontzi gehienak lurrezkoak izan dira duela gutxi arte.



Hau orrazi handia!



Zer orrazten nuen?

Lihoa: "lihoaren atsekabeak, amaigabeak" dioen esaera zaharrak ederki laburbiltzen du zenbat lan egin behar zen lurra goldatzetik atorra bat jantzi arte.

Emakumeen lana izan da gehienbat, eta industrializazioak kotoizko arropak merke helarazi arte, ezinbestekoa, etxeko ekonomian.



○ **Drin-drin!!! Orain txikiak gara eta sakelan eramaten gaituzue.**



Non ezarri zuten zentral telefoniko hau 1926an?


Donostian.

Donostiak bere telefono-zentral propioa izan zuen, oso ongi eta modu autonomoan funtzionatu zuena, harik eta Telefonicak bere egin eta 1987an bertan behera utzi zuen arte, Donostia telefonia sistema zentralizatu batean txertatuta geratu zelarik.

Hemen erakusgai dagoen makineria konplexu eta sofistikatua jatorrizkoaren herena baizik ez da, eta Museoak berrikitan eskuratu duen pieza da, museo batek ez diolako inoiz gauzak biltzeari utzi behar, etorkizuneko belaunaldietakoek gure orainaldiko bizimodua ulertu eta gure ondareaz ere goza dezaten.



○ Horrelako familiak maiz izaten dituzu esku artean.



Euskal Herrian badaġo karta-lantegi bat: non?

Gasteizen (Araban).

Heraclio Fournier inprimatzaileak 1868an ezarri zuen izen bereko lantegia. Gaur egun egoitza New Yorken duen multinazional bateko kide da eta lanean dihardu.

Gasteizen badaġo karten egintzari eta ezaugarri guztiei dedikatutako museo bat, lantegi honetako funtsetatik abiatuta.



Korrika naramate, eskuz esku korrika.



Noiz izan zen lehendabizikoa?

1980an.

Korrika bi urtean behin abiatzen da Euskal Herrian herriz herri, hainbat ibilbide jorratuta, euskararen alde, hain zehatz AEK Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinadora antolatzailearen alde dirua biltzearen. Kilometro bakoitzeko sponsor (denetarikoko talde soziokultural edo ekonomiko) batek dirua eman eta trukean lekukoa korrika darama, hainbat korrikalarik lagundurik.

1995ean, jatorrizko lekukoa, Remigio Mendiburu eskultoreak egina, San Telmo Museoari eman zitzaion, arte- eta kultura-ondare gisa zain dezan, eta haren erreplika bat erabiltzen da gaur egun.



Hutsik eta era berean beterik nago.



Nor da egilea?

Jorge Oteiza eskultorea.

Oteizak euskal artea irauli eta era berean biziberritu egin zuen, euskal kulturaren erroak eta munduko abangoardia artistikoak batu eta arte figuratibotik aldentzen ziren emaitza berriak aurkeztu zituelarik.

Halaber, eskultore eta pintore gazteagoak, eta hein batean bestelako artistak (musikariak, literatoak) ere sustatu zituen, harengandik abiatuta bide berriak jorratu zituzten eta.



ONDAREA KONTSERBATZEKO GARRANTZIAZ SENTIBERATASUNA AREAGOTZEKO ARIKETAK:

Museoen zeregina ondarea biltzea, behar bezala gordetzea eta zabaltzea da; ondarea zaintzea, ordea, denon ardura da.



Beheko klaustroan, "Aztarnak Oroimenean" aretoaren aldean.

- San Telmok ia bostehun urte ditu. Orain guztiz zaharberritua dago. Baina, iraungo badu, kontuz ibili behar da. Horregatik ezin dira gauzak ukitu, ezta harriak ere, gogor gogorrak izan arren.

Hona hemen hareharri bat, San Telmoko harriak bezalakoa. Igurtzi eskuz:

Zer gertatzen da? **Hondar aleak erauzten zaizkiola.**

- Papera asmatu ez balitz, ez genuke gure historiaz ia ezer ere jakingo. Baina papera oso delikatua da, ukitu gabe ere hondatu egiten da eta.

Konparatu orri bat, ilunpean kontserbatutako aldea eta argitan gordetakoa.

Zein orrialde kontserbatu da hobeto? **Argitu gabea.**

- Zertarako balio dute museoetako gauzek, ezin badira erabili?

Bada... hain zuzen, denboran zehar iraun dezaten! Eta hala ere, lanak! Burdina bera, oso gogorra izanagatik ere, hondatzen da kanpoan utzita.

Ezetz asmatu zein den burdinaren etsairik okerrenetako bat!

- Begiak: ikusteko, argia behar dutelako.
- **Hatz-mamiak, haiekin laztantzen dugulako.**
- Ahotsa, hitz egiten dugunean beti eskapatzen zaigulako tua, tanta mikroskopikoak badira ere.

Izerdia (eta hatzei izerdia darie, etengabe) hezea eta gazia da, eta elementu hauek biek metalak herdoiltzen dituzte.

- Giroa hezeegia edo lehorregia bada, edo hotzegia edo beroegia, landare- eta abere-zuntzeko materialak narriatu egiten dira.

Baina okerrera aldaketak dira, horrela hondatzen dira gehien egurra, larrua, oihalak (artilea, lihoa, kotoia...), eta abar. Konparatu material berberak: zeintzuk daude hobeto eta zeintzuk okerrago?

Larrua, oihala eta egurra oso heze, oso lehor eta behar bezala: hiruna puska.





MUSEO BAT, HAMAIKA KONTU 2

IBILBIDE OROKORRA

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:

San Telmo Museoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



SEZ

berria^{ento}

GARA

naiz:

